



# the balde

0€



65

abuztua / iraila  
august / september

etorkizun higatua  
faded future

# 65



## the balde

### antsoain 1

31014 iruñea

t. +34 948 12 19 76

f. +34 948 14 82 78

### donostia ibilbidea. 11 behea

20115 astigarraga

t. +34 943 44 44 22

f. +34 943 33 60 66

[www.thebalde.net](http://www.thebalde.net)

[info@thebalde.net](mailto:info@thebalde.net)

[publi@thebalde.net](mailto:publi@thebalde.net)

m. +34 686 485 980

### publizitatea bizkaian / publicity in bizkaia:

manukleart

+34 644 257 027

[bizkaia@thebalde.net](mailto:bizkaia@thebalde.net)

### harpidetzak / suscriptions: goizeder anton

argitaratzailea / publisher: eragin.com . komunikazioa eragin sl

editore / editor: iñigo martinez

zuzendaria / director: koldo almandoz

diseinu burua / head of design: martin etxauri

zuzendari komertziala / comercial director

& publicitatea / publicity: iñigo martinez

diseinua / design: martin etxauri, iker bereziartua, eneko etxeandia.

itzulpenak / translations: smiley, 11 itzulpen.

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: arkaitz villar, uxeta labrit, carton, agurtzane ortiz.

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: the balde crew, josu uriarte, carton, jon enciendo, nestor lopez garin.

komikia / comic: laida muruzabal

azaleko irudia / cover image: josu uriarte


harpidetza orria / subscription page: carolina romero (usandizaga arte eta diseinu eskola)

aurkibidea / sumary: anonimoa

inprimategia / printed at: espacegrafic

lege gordailua / legal: na-3244/01

### The Baldek sortutako eduki guztiek honako lizentzia pean daude:

 Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo helbidean zehazten diren baldintza zehaztetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>



Eusko Jaurlaritzako  
Kultur sailak diruz  
lagundutako aldizkaria



2460 27  
1111

**expogrow**

Irailaren 14tik 16ra bitartean, Expogrow nazioarteko azoka ospatuko da Irunen. Ohiko kalamu azokek eskaintzen dutenaz gain, Expogrow-k saiakera berezia egin du era bateko eta besteko jendearentzat aukera anitzak eskaini ahal izateko. Salmenta-guneaz eta kannabisaren kulturarekin zerikusia duten jardunaldiéz gain, musika eta kale-arte jaialdi itzela prestatu dute. Besteak beste, skatea, graffitiak eta Marea eta Cypress Hill-eko B-Real-en kontzertuak.

[www.expogrow.es](http://www.expogrow.es)

**expogrow**

Expogrow International Fair is going to be held at Irun from 14th to 16th September. As well as the usual offer at cannabis fairs, Expogrow has made a special effort to be able to give the widest possible options to all sorts of people. As well as sales stands and activities related to cannabis, there's going to be a huge music and street art festival. Amongst other things, skateboarding, graffiti and concerts by Marea and B-Real from Cypress Hill.

[www.expogrow.es](http://www.expogrow.es)



VARIOUS TRIPS

**goya. asmatutako estanpak**

"Kapritxoak, hondamendiak, tauromakia eta burugabekeriak" Bilboko Arte Eder museoak dituen fondoekin osatu den erakusketa da. Paperean eginiko marrazki hauetan, tradizio erlijiosoak eta laikoak, gerraren basakeriak, herriaren ohitura eta sinismenak islatzen ditu Goyak; misterioz beteriko lanak dira. Atarian zakurrik behar ez duen Bilboko beste museoan ikusgai.

<http://www.museobilbao.com/exposiciones.php>



**goya. invented engravings**

This exhibition, entitled "Caprichos, Disasters, Tauromachy and Follies" is made up of pieces from the Bilbo Fine Arts Museum collection. Goya shows religious and lay traditions, wartime savagery, popular customs and beliefs in these drawings on paper. They are works full of mystery. You can see them at the other museum in Bilbao, the one without any dogs guarding its doors.

<http://www.museobilbao.com/exposiciones.php>



**zinemaldia 60**

Gisa honetako edozien ekitaldi erraldoiren moduan, Zinemaldiak baditu hobetzeko eta zuzentzeko alorrak. Horri, ñoñostiar batzuek hain gustoko duten glamourraren kontua gehitu eta atzeraka ere egin dezake. Ados. Baina Zinemaldiak urtero filmak ikusteko eskaintzen digun aukera ordainezina dela esan behar dugu beste behin. Irailaren 21etik 29ra. Gozatu!

[www.sansebastianfestival.com](http://www.sansebastianfestival.com)

**zinemaldia 60**

Like all giant festivals of all types, Zinemaldia has room for improvement in some areas. If you add to that the glamour that some Donostia sloanes seem to love, finding it all a bit unattractive is understandable. Ok. But the chance Zinemaldia gives us to see films every year has to be underlined once more. From 21st to 29th September. Enjoy it!

[www.sansebastianfestival.com](http://www.sansebastianfestival.com)



GETXO  
PHOTO

The Twins © Jonathan Hobin

Argazki Jaialdia / Photography Festival

# GETXOPHOTO

UMEEI GORAZARRE / IN PRAISE OF CHILDHOOD

Iraila / September 2012

Roger Ballen / Jill Greenberg / Paola de Grenet / Jonathan Hobin / Jan Von Holleben / Frieke Janssens / Sofie Knijff / Margaret M. de Lange / Jacqueline Roberts / Alessandra Sanguinetti / Robin Schwartz / Vee Speers / Ilona Szwarc / Javier Tles / Jon Uriarte / Tereza Vlčková / JeongMee Yoon / O Zhang

Komisarioa / Curator: Frank Kalero

antolatzailea / organizer

**BEGIHANDI**

babesleak / sponsors

**Getxo**  
UDALA • AYUNTAMIENTO



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
KULTURA SALA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

**Estudios Durero**

**bbk**

laguntzailea / collaborator

**the balde**  
www.thebalde.net

### kontuari kontu

Koldo Mitxelenako Ganbara aretoan, Galtzagorri elkarteak ipuinei eskainitako erakusketa originala prestatu du. Hainbat artistek eta jarduera ezberdinetan aritzen diren ipuingile eta kontalariek lan irudimentsua egin dute ipuina objektu fisiko bihurtzeko. Ipuinaren tradizioak garapenerako eremu zabala duela frogatzen du erakusketak. Abuztuaren 25era bitartean ikusgai eta gozagai.

### talking about tales

Galtzagorri Association has organized an original exhibition at the attic rooms of Koldo Mitxelena culture centre. Several artists and storytellers and writers of different types of stories have worked with great imagination to turn tales into physical objects. The exhibition proves that the tradition of telling tales is a wide open field. You can see and enjoy this until 25th December.



### domus enea

Nork ez du bere jaiotetxea oroitzen? Edo udak pasatzen zitueneko etxe hura? Edo aitona-amonen baseria? Domus enea proiektuak oroitzapen horiek marrazki baten bidez gordetzeko aukera ematen digu. Argazkiek, saturazioz eta errazkeriaz, beren xarma galdu duten garaietan, marrazki batek, bere arintasunean, etxeko harrien pisu bera izan dezake.

<http://www.domusenea.es/eu>

### domus enea

Who doesn't remember the house they were born in? Or the house they spent their summer holidays in? Of their grandparents' farmhouse? The Domus enea project gives us the chance to keep these memories thanks to drawings. Nowadays we can see too many photos and get tired of them, they've lost some of their charm, and a drawing, so swiftly done, can have all the weight of a stone-built house.

<http://www.domusenea.es/eu>

### zein da zein?

Azken hamarkadetan, lagun talde batek lortu du Castellongo zenbait egunkaritako orrialdeetan argazki "bereziak" argitaratzea. Egunkarietako parte-hartze sailetan (jendea, gizartea, tokian-tokikoak) pertsonaia ezagunen irudiak sartu dituzte jende anonimoen berri ematen zuten albisteak irudikatzeko: Bill Gates, Hitler, Ceaucescu, Philip Starck, Urrusolo Sistiaga, Paul Auster, Samantha Fox eta beste dozenaka pertsonaiek bizitza berri bat bizitzeko aukera izan dute Castellongo prentsan.

### who's who?

During recent decades a group of friends has managed to get some newspapers to publish a lot of "special" photos. In various sections of the newspapers (people, society, local) they've put in famous people's pictures to illustrate unknown people's stories: Bill Gates, Hitler, Ceaucescu, Philip Starck, Urrusolo Sistiaga, Paul Auster, Samantha Fox and dozens of other famous people have given the chance to live a new life in the Castellon press.

SERIO  
TXANTXETAN





diseinua, internet  
eta argitarapenak



We received the text  
the other day.

~~Beste~~ Lehengo  
egunean testua jaso  
genuen.

Itzulpen eta zuzenketa  
zerbitzu profesionala

INGELESA | EUSKARA

GAZTELANIA | FRANTSESA | ALEMANA

**11itzulpen**  
[www.11itzulpen.com](http://www.11itzulpen.com)

## *Elur-antzara*

Paul Gallico

“Elur-antzara”-ren gaiak bakardadea eta amodioa, bazterkeria eta elkarlana, gerra eta izadia dira. Baztertuta bizi den artista baten eta neska umil baten istorio hunkigarria kontatzen digu Paul Gallico-k. 1941etik, “Elur-antzara” ez da inoiz falta izan Ingalaterrako eta AEBetako liburu-dendetan.

Dagoeneko  
salgai

HamaikaBooks

### eraikina lorategi

Duela urtebete, Juli Capella diseinatzaile eta arkitektu kataluniarrarekin mintzatu ginen diseinuaren inguruan. Elkarrizketa interesgarri hartan, alkandora itsusiak janzen zituen gizon argia zela ikusi genuen. Bere estudioaren azken proiektuak txundituta utzi gaitu. Bartzelonan, lorategi bertikal ederra sortu dute eraikin baten pareta itsuaren gainean. Ea adibidea ugaltzen den.

[http://www.architizer.com/en\\_us/blog/dyn/43771/a-living-garden-wall-transforms-barcelona-neighborhood/](http://www.architizer.com/en_us/blog/dyn/43771/a-living-garden-wall-transforms-barcelona-neighborhood/)

### garden building

A year ago the Catalan designer and architect Juli Capella talked to us about design. During that interview it became clear that this man, even dressed in his ugly shirts, was very clever. His studio's latest project has amazed us. They've created a beautiful vertical garden on the facade of an ugly building in Barcelona. Let's see if this becomes an example for other places and people.

[http://www.architizer.com/en\\_us/blog/dyn/43771/a-living-garden-wall-transforms-barcelona-neighborhood/](http://www.architizer.com/en_us/blog/dyn/43771/a-living-garden-wall-transforms-barcelona-neighborhood/)



### remigio mendiburu

Eskultore hondarribiarraren erakusketa antolatu du Oteiza museoak "Formaren eraikuntza" izenburupean. Funtsezko obra nagusiaz gain, inoiz argitara atera gabeko material ugari dago ikusgai. Nahiz eta Oteiza museoa izan, Mendibururi erakusketa antolatu izanak gauza bat frogatzen du: bizirik dauden museoak ez dira izen bati lotuta dauden kriptak. Urriaren 7a bitartean.

<http://www.museooteiza.org/2012/06/remigio-mendiburu-formaren-eraikuntza/>

### remigio mendiburu

Oteiza Museum has organized an exhibition of the Hondarribia sculptor's work under the title "The Construction of Form". As well as his essential works, a lot of previously unseen work is on show. Although it's the Oteiza Museum, Mendiburu's exhibition proves one thing: living museums are not crypts tied down to a single name. Until 7th October.

<http://www.museooteiza.org/2012/06/remigio-mendiburu-formaren-eraikuntza/>



HAIN GERTU  
HAIN URRUN

### iparraldea XXI dokumentala

XXI. mendeko iparraldea ezagutzen al duzu? Galdera hori egiten digute dokumental honen egileek. Eta, iparraldea "kontzeptu" zabala bada ere, saiakera interesgarria da dokumental honek proposatzen diguna. Askotan saltzen zaigun folklorismotik at iparralde garaikide bat badagoela ez zekitenentzat lan gomendagarria.

<http://www.eke.org/eu/partaideak/blogak/iparraldea21/bideoa/>

### iparraldea XXI documentary

Do you really know the 21st century Northern Basque Country? The makers of this documentary ask us that question. And, while the idea of "the north" is interesting, the idea this documentary offers us is an interesting one. This is particularly recommended for people who tend to think that the North and folklore are pretty well synonyms.

<http://www.eke.org/eu/partaideak/blogak/iparraldea21/bideoa/>

organized by



Informazio gehiago: Expogrow S.L. - Ronda de las Ventas, 4 bj. - 31600 Burlada  
Tel.: +34 933 806 560 / +34 601 090 084 - info@expogrow.net - www.expogrow.es

# expo grow



Kalamu azoka bat baino askoz gehiago

## 2012KO IRAILAK 14 15 16

### Ficoba-Irun erakustazoka

EROSI HEMEN ZURE SARRERAK DESKONTU BEREZIEKIN : [www.expogrow.es](http://www.expogrow.es)

#### KONTZERTUAK

OSTIRALA, IRAILAK 14:

# MIARETA ETA GEHIAGO...

LARUNBATA, IRAILAK 15

# B:REAL

from *CYPRESS HILL*  
LOS DEL GÁS ETA GEHIAGO...

#### FORO INTERNACIONAL DEL CANNABIS

HIZTUN

XABIER ARANA (IVAC-EHU) JUAN MUÑOZ (MALAGAKO UNIBERTSITATEA) TOM DECORTE ( BRUSELAKO KRIMINOLOGIA INSTITUTUA) TIKUM OLAM (CANNABIS ISRAEL) J.C. BOUSO (PSIKOLOGO ETA PSIKOTERAPEUTA ) CELINA PEREDA ( E. J.KO DROGODEPENDENTZIEKIN ZUZENDARIA) FREDERIK POLAK (ENCO) MARTÍN BARRIUSO (FAC) CAREL EDWARDS (EUROPAR BATASUNEN AGINTARI-OHIA.) TODD MCCORMICK (AEBTAN EKINTZAILE/AKTIBISTA ) PEDRO CALDENTEY (ABOKATUA) KOLDO CALLADO (EHUKO FARMAKOLOGIAKO DOKTORE) JOEP OOMEN (ENCODEKO KOORDINATZAILEA) JUAN CARLOS USÓ (HISTORIALARIA) JEAN PIERRE GALLAND (ONG CIRCA)

#### CANNA X-TREME & KANNABIA GRAFFITI

OSTIRALA, 14  
STREET ETA ARRAPALA  
MODALITATETAKO AMATEUR.

LARUNBATA, 15  
EGUNAREN LEHEN ORDUTIK INORK EZIN  
IZANGO DITU GALDU PROFESIONALEN  
EMANALDIK.

IGANDE, 16  
FINALA IRABAZTEKO DENA EMATEN DUTEN  
PROFESIONALAK IKUSTERA ETORTZEN  
DIRENEK IRRIKI HANDIAGOREKIN ESPERO  
DUTEN EGUNA IGANDEA DA.

OSTIRALA, 14  
GRAFFITI ZIRIBORROAK  
GONBIDATU ARTISTA: LOOMIT, POPAY, RIPO, KRAM, DIOS1, FASIM, SAN, MUSA,

LARUNBATA, 15  
GRAFFITI BUKATZEN

IGANDE, 16  
ARTE LAN GUZTIAK AMAITUTA  
EL NIÑO DE LAS PINTURAS

MAIN SPONSOR



OF EXPO GROW



### urratsak

Maskull Lasserre Kanadan jaio eta Hego Afrikan hezi zen. Naturak oraindik gizakia izutzeko gaitasuna duten herrialde bi. Akaso horregatik egin die omenaldia basapiztiei bere *Outlier (Traces)* lanean. Ehiztariei trufa egin nahi badiezu, espioia bazara, edo jarraitzaile maltzurri iskin eman nahi badiezu, zapata eta bota hauek jantzi behar dituzu.

[http://maskullasserre.com/section/296524\\_Outliers.html](http://maskullasserre.com/section/296524_Outliers.html)

### traces

Maskull Lasserre was born in Canada and brought up in South Africa. Two countries in which nature can still frighten humanity. Perhaps that's why he's paid tribute to wild animals in his work *Outlier (Traces)*. If you want to take the piss out of hunters, if you're a spy, and if you want to get rid of followers with bad intentions, you'll have to put on these shoes and boots.

[http://maskullasserre.com/section/296524\\_Outliers.html](http://maskullasserre.com/section/296524_Outliers.html)



### origami erretratuak

Soilik papera zimurtuz eta argia erabiliz, aspaldi ikusi ditugun erretraturik ederrenak eta originalenak topatu ditugu. Eta gehien gustatzen zaiguna da, lan hauek ikusita, jende askok pentsatuko duela: "nik ere egin dezaket" edo "zergatik ez zait niri bururatu?". Kumi Yamashita izan da erretratu irudimentsu hauen egilea. Sorkuntza, artea, simplea eta, era berean, hain sakona denean, liluragarria da.

<http://www.kumiyamashita.com/portfolio/origami-2/>

### origami portraits

The most beautiful and original portraits we've seen for a long time are made of just folded paper and light. And what we like best is that many people, on seeing them, will think: "I can do that too" or "Why didn't I think of that?". Kumi Yamashita is the creator of these imaginative portraits. This creation, this art, is wonderful in its simplicity and depth.

<http://www.kumiyamashita.com/portfolio/origami-2/>

FACE TRACES



album

by: jon uriarte










Jon Uriarteren lan hau aurtengo GETXOPHOTO argazkilaritza jaialdian izango da ikusgai.

This work by Jon Uriarte will be exposed at the current GETXOPHOTO festival.

[www.jonuriarte.es](http://www.jonuriarte.es)  
[www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)



audio

testua / by: arkaitz villar

Biharamun ahotsa duen abeslariak Azkena Rock Jaialdian eskaini zuen kontzertua erdizka gustatu bazitzaigun ere, diskoan asko irabazten du. Kantu motz eta zuzenak dira, desamodioz eta alkoholez beteak. Guk ere defendatuko dugu prentsa espezializatuak goraiptatu duen disko hau, blues, folk, rock n'roll eta autore zigilua duten abestiak melodia bikainekin bilduta datozelako. "I get ideas" kantuak dantzan jarri gaitu, baina "Watch the show" da gehien gustatu zaiguna.

Sporting a hung-over-like voice, Ward didn't convince us in his Azkena Rock Festival appearance. but he certainly gains on this record. The songs are short, to-the-point and are full of falling-out-of-love and alcohol. The music press have been full of praise for this collection of songwriter blues, folk and rock 'n' roll with some killer melodies and we are no different. "I get ideas" will have you dancing but our very favourite is 'Watch the show'.

Erresuma Batutik datorren Orlando Higginbottomek gidatzen duen proiektu honek house musikaren oinarri sinpleak erabiltzen ditu konposaketak sortzeko. Pop ukituak gaineratuta, elektronikaren eszenan zer esana ematen ari den lana osatu du. Orain arte kaleratutako hainbat EPri eta "Garden" singleari esker ikusmina sortu badu ere, disko luze honek bere maila baieztatzen du. Dantzalekua hankaz gora jartzen duen "Tapes & Money" da erakuslerik garbiena.

Hailing from Britain with Orlando Higginbottom at the helm, the compositions here follow the simple basics of house music. Add a few dashes of pop and everybody on the electronica scene is talking about them. They showed glimpses of their promise on previous EPs and the single 'Garden' and with this album they have come good on it. Look no further than the track "Tapes & Money"; it has the dance-floors heaving.

Sonic Youthen "Wish Fulfillment" kantuan Lee Ranaldoren ahotsak harrapatu egin ninduen. Bakarleri gisa argitaratu duen lan honetan berriro aurkitu dut sentrazio hori. Kantu sendoak osatu ditu, besteak beste, Steve Shelley, Nels Cline, John Medesk edo Jim O'Rourke musikariaren kolaborazioarekin. Bere ibilbidean erabili dituen elementu sonoroen bilduma hau urteko disko hoberenetako bat izango da.

On the Sonic Youth song "Wish Fulfillment" Lee Ranaldo's voice captivated me. On this new solo release I have been hit by the same sensation all over again. Look out for some great guest appearances by Steve Shelley, Nels Cline, John Medesk and Jim O'Rourke, amongst others. A collection of all of the sound elements he has used throughout his career, one of the best albums of the year no doubt.




**M.Ward**  
A Wasteland Companion  
Merge Records



**The Jackets**  
Way Out  
Soundflat Records

Jackie Brutsche abeslari basatiaren inguruan osatutako taldea da The Jackets. Suitzarrek garage, punk eta distortsioz betetako abestiak bildu dituzte bigarren disko honetan. "Oh baby" maitagarriaz gain, "Waistin my time" bezalako kantu indartsuak aurkituko dituzu. Europako rock n'rollaren underground eszena sutan jarri duen talde honen lanak sukarra eragingo dizu barneratu bezain azkar.

The Jackets are a band built around wild singer Jackie Brutsche. Swiss garage and punk and a bunch of souped up distortion-filled songs make up this, their second record. As well as the charming "Oh baby", there is plenty of hard stuff like "Wastin my time" to be savoured too. This lot have set the European underground rock 'n' roll scene on fire and their fever is highly contagious. You have been warned.



**Totally Enormous Extinct Dinosaurs**  
Trouble  
Polydor Records



**Whihelm and the Dancing Animals**  
The War of the Species  
Origami records

Ondo pasatzeaz gain, dantza egiteko abestiak sortzen ditu Iruñeko talde honek. Horretarako, animaliekin aliatu dira, eta guztien artean erritual magiko bat osatu dute. "Arcade Fire" edo "Architecture in Helsinki" kantuen erritmo bizienak oso gertu dituzte "Elephant" bezalako abestietan; baina doinu barnerakoiak ere aurki daitezke lehendabiziko disko honetan, "Ten go" kantuan, esaterako. Dibertitzea gustuko dutenentzat.

This Pamplona band are out to have a good time and write some nice dance tunes while they are at it. With this in mind, they have allied themselves with a few animals and all together they have created a magic ritual. On songs like 'Elephant' they are pretty close to the liveliest "Arcade Fire" or "Architecture in Helsinki" but they can get quite introvert too on this debut album, take "Ten go" for instance. For those of you who like to enjoy yourselves.



**Lee Ranaldo**  
Between the Times & the Tides  
Matador



**Instituto mexicano del sonido**  
Político  
El Volcán

Camilo Larak politikaz bete du estudioko laugarren diskoa. Cumbia ugari dago, baita ohiko sanplerrak ere, eta dantza egiteko aitzakiarik ere ez da faltako. Hala ere, oraingoan, munduan gertatzen diren gehiegikeriak salatzea deliberatu du; "Mexico" kantua debekatu egin diote herrialde hego amerikarrean. Dantza politikoaren koktel honek udako abestia ere badakar: "Se baila".

Camilo Lara has filled the recording studio with politics on his fourth album. Lots of cumbia as well as the usual sampling on display so no excuse for not shaking your bones to this one. However, this time around, the music is strengthened by the highlighting of the abuse of power across the globe. The song 'Mexico' has been banned in this South American country. This cocktail of dance and politics also contains what will be the summer hit this year: "Se baila".

## herri urdinaren bluesa the blue man blues



1980 eta 1990 bitartean, tuareg ugari Libiara herbesteratua izan zen. Bertoko errefuxiatu eremuetan izan zuten beren lehen kontaktua blues musikarekin. Tuareg herria, Afrikako hainbat herrialdetara bidaiatzera ohituta egonik, tokian-tokiko musikak bere egin ohi dituzte. Bluesarekin gauza bera gertatu zen. Ez da harritzekoa (kolorea patua ote?) gizon urdinei bluesa gustatzea. Musika “berri” hari assouf (malenkonial) izena jarri zioten.

Musika estilo berezi honen aitzindariak Nigerreko Addallah ag Oumbadougou eta Maliko Ibrahim ag Alhabib, Alhassane ag Touhami eta Entayaden izan ziren. Gitarra akustikoak elektrifikatu, eta, 1990eko hamarkadan, tuareg errebolturen hastapenetan, herri urdinari armak hartzeko gonbita egiten zioten beren kantuekin. Mali eta Nigerreko gobernuentzat gaizkile bihurtu ziren berehala, eta hanka egin behar izan zuten, baina kasetetan grabatutako “assouf” kantuak berehala zabaldu ziren desertuan zehar.

Desertuko bluesak jatorri eta osagai ezberdinen nahasketaz eginiko musika da. Musika arabiarri eta tuaregen kantu tradizionaleri blues eta rock doinuak gehituz sortzen den doinu hipnotikoa da. Hitzei dagokionez, armetan altxatzeko aldarri gisa jaio zen musika estilo hau; ohorea, politika, nortasuna, maitasuna eta gudako gertakariei kantatzen die nagusiki.

Duela 30 urtera arte nagusiki ahozkoa zen tradizio musikalak gogor eta kementsu eutsi dio. Orainaldian sustraitutako musika da. Gaztea izan arren, garatzeko eta bide berriak bilatzeko gaitasun handia erakutsi du. Talde ugari sortu da, eta musika-tresna berriak eta molde berriak sortuz joan dira. Bakardadearen eta isiltasunaren eremuan bizi direnak musikazale amorratu suertatu zaizkigu. Iaz, herrialde berriaren sorrera ekarri zuen errebolturen, tuaregen pick up eta todoterrenotan “assouf” musika ozen entzuten zen. Musulman fundamentalistek musikarekin dute harremana zein den jakinik, ordea, ikusi beharko da zer gertatzen den Saharan sortu berri den herrialdean.

2011ko irailaren 20an, Amazig Tumuzga (tuaregen herrialdea) errepublika sortu zen. Orain arte Niger eta Maliren menpe zegoen herriak bere gain hartu ditu Sahara desertuko lurak. *Tamachek* ahozko hizkuntza eta *tifinag* idazkera hartu ditu, eta Agadez aukeratu dute herrialde berriaren hiriburu. Gobernu berriak laiko eta demokrazia federalista gisa definitu du bere burua. “Liburu urdinean” jaso ditu bere sorrera testu nagusiak, eta ereserki nazionala ere estreinatu du; bandera berriari Tuareg herriaren zazpi federazioak bildu ditu zazpi izarren pean.

Many Tuaregs were exiled to Libya between 1980 and 1990. Their first contact with blues music was usually at the refugee camps there. The Tuaregs, being used to travelling to some many places in Africa, usually adopt the music of the places they go to. And that's what happened with the blues. It's no surprise (maybe the colour's like destiny?) that blue men like the blues. They called this “new” music assouf (melancholy).

The pioneers of this special types of music were Addallah ag Oumbadougou from Niger and Ibrahim ag Alhabib, Alhassane ag Touhami and Entayaden from Mali. They wired up their acoustic guitars and, in the 1990's, at the start of the Tuareg revolt, used their songs to invite the blue people to take up arms. The governments of Mali and Niger soon decided that they were wrong-doers and they were driven into exile, but Assouf songs, recorded on cassettes, reached all over the desert.

Blues from the desert is music which combines different origins and elements. It's a hypnotic sound which comes from adding rock and blues to traditional Tuareg and Arabic songs. As far as lyrics are concerned, this music started off by calling people to arms: the main subject matters are honour, politics, personality, love and war.

30 years ago, it was based on a mainly oral tradition of music. It's now a type of music with roots. Although it's a young type of music, it's already shown a great ability to adapt and find new forms. Many groups have been formed by making new instruments and new patterns. People who live in silence and alone have become devoted music fans. Last year, in the revolt which created a new country, Assouf music was heard loud and clear from the Tuareg's pick-ups and 4x4's. However, bearing in mind the relationship between Islamic fundamentalists and music, we'll have to see what happens in the new country that's been created in the Sahara.

Amazig Tumuzga (the Land of the Tuaregs) was founded on 20th September, 2011. People which until then had been controlled by Niger and Mali have taken over parts of the Sahara. They have chosen *Tamachek* as their spoken language and *tifinag* as their written language and Agadez is the new country's capital. The new government describes itself as lay, democratic and federalist. The “Blue Book” is their foundational text and they also have a national anthem. The new flag has seven stars on it to show the Tuareg's seven federal states.



## ciclos iturgaiz guatequera gonbidatua zaude you're invited to the party

Ezer baino lehen, diskoaren azala, inozentea batetik, baina ezinegona sortzen duena bestetik... *Guatque* mutiltxoentzat eginiko diskoa al da?

Ez ez!! mutiltxoentzat ez, neskatilentzat. Gehiago gustatzen zaizkigu eta! kar, kar, ka. Azala lizuna eta ezinegona sortzen duen horietakoa da, bai. Rollo txarra ematen du. Garage bat, eta neskatila birekin. Eta kontrazala okerragoa da!

Aitormen bat: kantuak etxean entseatzeko ari ginela, hilabete eskaseko nire alabak Ciclos Iturgaiz dantzatzeko zuten. Sinistu dezakezu? Nire emazteak, gainera, barre egiten zuten. Irudi hark benetan izutu ninduen. Munstro bat sortu dugu, eta gure kontra jartzen hasi da!

**Gurpildun aulkiak joko ematen jarraitzen du.**

Gurpildun aulkiak barruak astintzen dizkizutelako. Inork ez du hor eseri nahi. Badakizu zer dagoen. Oso siniestroak eta gotikoak dira. Abandonaturiko ospitalak azaltzen direneko film horietan beti gurpildun aulkiak azaltzen dira botata... Joder ze beldurra!

Hilkutxak bezalaxe. Kontzertu batera etxean kartoiekin egindako bat eraman genuen, ongi margotua, benetakoa zirudien. Furgonetaren atzeko aldean generaman. Benemeritak gelditzen bagaitu zer esango dugu? Lasai, motel, antzerki talde bat gara eta kitto. Barreak bai, baina *yu-yu* apur bat ere bai.

Elementu siniestroak kontestutik kanpo ateratzea atsegin dugu. Jendea deseroso sentitzen da. Iluntasunarekiko erakarpen handia sentitzen dugu. El Desván del Macho-ren ultra-fansak gara.

Putak, Ana Rosa Quintana, euskal sukaldariak, banderak, Otegi, apaizak, alardea, bake prozesua... Diskoa egunkari bateko urtekaria dirudi, baina speed-elektronikaren eritimoan... **Musika talde "tertuliano-elektroniko-pop" bat al zarete?**

Ah, "celebrity"-ak, gure beste joera kuttunetako dira. Maite ditugu, baina kasu! Edonork ez du balio. Ciclos Iturgaizentzat pertsonariak hoberenak guztiek ezagutu bai, baina oso grisak eta inork aldarrikatu ez dituenak dira, Maria Escarioren modukoak.

"Tertuliano-elektroniko-pop"? Kar kar kar, oso ona. Naturaz gara poperoak, edozein estilo edo joeratan. Eta bai, egunerokotasunean guk sortu ez ditugun egoerak islatzen ditugu, hori bai, beti ere buelta bat emanaz, malahostia apurrarekin desitxuratuz, batzuetan min emateko, eta, beste batzuetan, "sobrada" bat direlako soilik eta ea zer gertatzen den, kar kar kar.

**Aurreko diskoaren (¿*Tienes webcam?*) izpiritu bera du honek. Baina ba al dago alderik? Talde gisa heldutasuna lortu duzue, estiloa garbitu, eta bigarren diskoarekin esaten diren gauza guzti horiek?**

Bai, bai, izpiritua bera da, hau oso muturreko proiektua da: hitzak lehergailuak balira egiten ditugu, barrez eztandarazi eta gerta daitekeenagatik beldur apur bat pasaraziko digutenak. Hori betetzen badute, amen.

Lehen diskoarekin konparatuz gero, honetan baseak landuago daude, ez dira hain zakarrak. Beti ere techno-amateur espiritu horrekin. Ez zaigu burutik ere pasatzen sofistikatua izatea edo, esate baterako, Air bezalako doinuak egitea. Ciclosen xarma soinuaren ere dago. Kontent gaude egindakoarekin. Nahiz eta Ciclos Iturgaiz izan, ordu asko sartu ditugu, eta iruditzen zaigu betiko "malaletxea" dagoela baina soinuaren ezberdintasuna dagoela. Heldustasunarena, kar kar kar... Honez gero, ezinezkoa dela esango genuke.

**Zuzenekoak emateko asmorik? Hala bada, bizkarzainekin joango al zarete?**

Bai, baina aukeratuak. Ez dugu asko jo nahi. Ez zaigu gustatzen jotze soilagatik jotzea; horrek

jostailua gastatzen du. Gustuko jaialdietan edo lagunak diren taldeekin jotzea atsegin dugu. Rollo ona sortuko den tokietan. Batzuk lotuak ditugu jada.

Aurreko diskoarekin eman ditugu zenbait emanaldi. Zaragozan, Madrilan (bitan), Gernikako gaztetxean (Kafea eta Galletak. Ze handiak diren Leire eta Ibon!) eta Bilboko Aste Nagusian (Pinpiren txosnan). Guztietan barreak eta rollo ona. Akaso tentsio gehien Bilbokoan. Plastikozko botilek hegan egin zuten, eta txosnako hainbat jende haserretu egin zen gure hitzekin. Zer espero zuten, serpentinak eta gangosoen eta marikiten txistek?

Euskalteli trufa egiten diogun kantuaren aurretik, enpresa kapitalista esplotatzaileari eskaintako hitzek ere ez zuten guztien onospena lortu. Ardanzen eskutik soldata kobratzen zuten txosnera bati ez zitzaion esandakoa gustatu, eta "Utz diezaiotela jotzeari! Utz dezatela orain!!" oihukatzen zuten. Ez da broma, eh!

Kontzertu hura izugarria izan zen. Jendez gainezka, fans batzuk saltoka eta kriston tentsioa, guztiak ahobete hortz; inork ez zuen alde egin. Eta gu gero eta harrokoago. Kantuen artean geroz eta astakeria handiagoak esanaz. Ciclos Iturgaiz lehen aldiz espazio publikoa okupatzen. Guai! Hori bai, txosnen kupoa agortu dugula uste dugu.

Bizkarzainak Ciclos Iturgaizentzat? Kar kar kar Mayor Orejari galdetuko diogu eskaintza berezirik ote duen, gai hauen inguruan asko daki eta. "Mobida" kontura zenbatek ez dituen poltsikoak bete! Gatazka pagotxa izan da askorentzat... ez soilik Ciclos Iturgaizentzat.

**Kanpaia jotzen gabiltzala pentsatuko duzue, baina aktualitatezko gai popularren inguruko hitzak, hizkuntz naturaltasuna, elektronika azeleratua, errimak... Guretzat XXI. mendeko bertsolariak zarete...**

Ohore bat da guretzat hori entzutea. 80eko hamarkadaren aurretik, bertsolaritza jarduera herrikoia zen, jaietako unerik gorenena. Bertsokak ludikoak, dibertigarriak, motzak eta zuzenak ziren. Inor ez zen aspertzen eta, ostean, tarbernetan, kalean edo etxeetan komentatzen ziren bertsokak... Txirrita, Lazkao Txiki, Mañukorta, Zeberio... eta beste askok barrea pizten zuten, dibertigarriak ziren. Eta, batez ere, EZ ZIREN ASPERGARRIAK, publiko zabalari eskaintako edozein ikuskizunetan gerta daitekeen gauzarik okerrera. Eta hori da, hain zuzen ere, orain gertatzen dena, bertso saioretara militanteak soilik joaten direla, eta erdia aspertu egiten da, baina ez dute onartu nahi, hori onartzea ez delako batere politikoki zuzena.

Mikel Urdangarinek berak egungo bertsolaritza astuna dela onartu zuen, eta bera bertsolaria izandakoa da. Errua ez da bertsolariena; bizi ditugun garaian isla besterik ez da. Durangoko Azokarekin gauza bera gertatzen da; urtero "todokristo" joaten da hara, eta hortik kanpo inork ez du euskal kulturarik konsumitzen (ekoizpen guztia data horietan ateratzera bultzatuz). Artea, kultura, ezin da data zehatz batera lotuta eta mugatua egon. Bertsolariekin gauza bera. Lau urtetan behin halako euforia batek harrapatzen gaitu eta BEC betetzen dugu. Txapelketa bitartean, desertu bat. Barkatu txapa, baina, askotan kontrakoak dirudien arren, euskal kultura maite dugu. Ciclosen botatzen ditugunak ez dira beti benetan pentsatzen ditugun gauzak, probokazio hutsa dira. Kitzikagarria da jendeak ez jakitea zer pentsatzen dugun benetan.

**Ez zaigu besterik otutzen. Besterik gabe, *Guatque* 2012. urteko gure disko kuttunenetarikoa dela esatea. Zuek zerbait gehitu nahi baduzue...**

Mila esker loreagatik! Eta, komentatzearren, jakin dezazuela ziurrenik Bilbon joko dugula *Un Pinguino en mi Ascensor* taldearekin. Haiekin mini bira bat egiteko asmoa dugu. Ilusio berezia ematen digu, berandu deskubritu ditugun arren, zoragarriak iruditzen zaigulako.

**First of all, the record's sleeve looks innocent, but then it makes you restless ... Is *Guateque* a record for little boys?**

No, not at all, it's a record for little girls. We like them more! Ha ha ha! It's one of those sleeves that makes you horny and restless, yes. It makes you nervous. A garage and two little girls. And the back sleeve's even worse!

A confession: we rehearsed the songs at my house and my daughter, who's just a few months old, started dancing to Ciclos Iturgaiz. Can you believe that? What's more, my wife laughed! Seeing that really frightened me. We've created a monster and it's started going against us!

**The seat with wheels on it is still a talking point.**

Because seats with wheels on really stir you up inside. Nobody wants to sit there. You know why. They're very sinister and Gothic. In films with abandoned hospitals in them there are always seats with wheels on them thrown down on the floor ... God, that's frightening!

Like coffins. We took one along to a concert, we'd made it at home, from cardboard, well painted, it looked real. We put it in the back of our van. What are we going to say if the Civil Guard stops us? Don't worry, mate, we'll say we're a theatre group and that'll be the end of it. We had a laugh, but it was a bit scary at the same time. **We like putting sinister things out of context. People feel uncomfortable.** We're very attracted to darkness. We're huge fans of El Desván del Macho.

**Prostitutes, Ana Rosa Quintana, Basque chefs, flags, Otegi, priests, processions, the peace process... The record looks like a newspaper's calendar, but at high-speed electronic rhythm ... Are you a "chat show-electronic-pop" group?**

Ah, celebrities, they're another of our favourite things. We love you, but watch out! Not anyone will do. The characters in Ciclos Iturgaiz are well-known, but they're very grey and nobody stands up for them, they're people like Maria Escario.

"Chat show-electronic-pop"? Ha ha ha, that's a good one! We're poppy by nature, in any style or tendency. And it's true, we reflect situations in every day life that we haven't created, always turning them around a bit, mixing them up with a bit of malevolence, sometimes to hurt, sometimes just because they're too much and then we see what happens. Ha ha ha!

**Your previous record (*¿Tienes webcam?*) is in the same line. Is there really any difference? Has your group come of age, perfected its style, all those things people say about second records?**

Yeah, yeah, the spirit's just the same, it's a really extreme project: we write the lyrics as if they were bombs that'll make us fall apart laughing and maybe frighten us a bit too. If that's what we achieve, great.

Compared with the first record, the lyrics are more solid, less brutal than on the the first record. Always with a techno-amateur spirit. We wouldn't dream of becoming more sophisticated or sounding like Air, for example. Part of Ciclos' charm is its sound. We're happy with what we've done. Even though it's Ciclos Iturgaiz, we've spent a lot of hours doing it and we reckon it's got our typical maliciousness but the sound's a bit different. Come of age, ha ha ha ... I'd say that's no longer possible.

**Are you going to play live? If you do, will you take some bodyguards with you?**

Yes, but we'll chose them ourselves. We don't want to play a lot. We don't like playing just for

the sake of it, that wears the toy down. We like playing at festivals we like or with our friends' groups. Places where there's a good feeling. We've got some set up already.

We've already given a few shows based on the last record. In Zaragoza, Madrid (twice), Gernika Youth House (Coffee and Biscuits. Aren't Leire and Ibon great!) and at Bilbo's Big Week (at Pinpi's stand). All a great laugh and a great feeling. There was a bit more tension at Bilbo. Some plastic bottles flew through the air and some people at the stands were angry about our lyrics. What were they expecting, party papers and jokes about gays and people who don't speak properly? We made some jokes about Euskaltel before one song, and our lyrics about an exploitative capitalist company weren't to everyone's liking. Some people who get paid by Ardanza didn't like what we were saying and told us to "Stop taking the piss! Stop that right now!" they shouted at us. That wasn't a joke!

That was an amazing concert. Loads of people, some fans jumping up and down, a lot of tension, everyone astonished: nobody walked out. And we got cockier and cockier. We said more and more savage things between songs. It was the first time Ciclos Iturgaiz had been conquering the public space. Wow! But we do reckon we've had our say at the stands.

Bodyguards for Ciclos Iturgaiz? Ha ha ha, we'll ask Mayor Oreja if there's an special offer, he knows a lot about that. How many people have lined their pockets with that story! The struggle's been a cushy number for many people, not just for Ciclos Iturgaiz.

**You may think we're taking the piss, but with lyrics about current affairs, all in a natural way of speaking, fast electronics, rhythms ... We think you're 21st Century bertsolari (improvising poets).**

It's an honour for us to hear that. In the 80's bertsolaritza was a popular activity, the climax at all festivities. Fun, funny, short, direct bertsos. Nobody got bored, everybody talked about them later in the bars, in the street or back home. Txirrita, Lazkao Txiki, Mañukorta, Zeberio and many others made you laugh, they were funny. More than anything else, THEY WEREN'T BORING, which is the best thing you can say about anything offered in public. And that's exactly what's happening now, only fanatics go to bertso sessions and they're half bored there, but they don't want to admit that, it wouldn't be politically correct to do so.

Even Mikel Urdangarin has admitted that bertsolaritza is boring nowadays, and he's an ex-bertsolari. It's not the bertsolaris' fault, it's just a reflection of the times we live in. The same thing's true of Durango Fair: everyone goes there every year and, apart from that, nobody buys Basque culture (and all production is put back to that date). Art and culture cannot be tied down to a specific date. The same's true for bertsolaris. There's a moment of euphoria once every four years when BEC fills up. Between the championships, it's a desert. Sorry to go on but, in spite of what some people think, we love Basque culture. Often the things we say in Ciclos aren't what we think, it's just to stir things up. It's stimulating that people don't really know what we think.

**We can't think of anything else. To conclude, *Guateque* is one of our favourite records from 2012. Would you like to add anything?**

Many thanks for the compliments! And, just so you know, we'll probably be playing with *Un Pinguino en mi Ascensor* in Bilbo. We're planning to do a mini tour with them. We're really keen on that: even though we came across them late, we think they're marvellous.

[www.ciclositurgaiz.bandcamp.com](http://www.ciclositurgaiz.bandcamp.com)



1968. urtean, Matti Suuronen arkitekto finlandiarrak espazio-ontzi itxurako eraikin berezi bat diseinatu zuen, oporretarako etxe edo eski-aterpetxe gisa erabiltzeko. *Futuro* izena eman zion. 60eko hamarkadako baikortasun eta sormen askatasunaren adibidea da *Futuro*. Espazioa konkistatu, informatika garatu, komunikabideak zabaldu... Garai hartan, teknologiak gizakiaren arazo guztiak konponduko zituela sinisten zen. Eta mendebaldeko herrialdetan, gainera, ongizate gizartearen finkatzearekin batera, hiritarrek aisialdiaren kultura murgildu ziren buru-belarri. Eta jakina, aisialdi eromen hark arkitektura berriak behar zituen.

*Futuro* etxea altzari guztiekin zetorren. Zortzi pertsonentzat zegoen diseinaturik. *Futuro*-ren berritasunik handiena, itxuraz aparte, bizilekua eraikitzeko erabilirik materiala zen: *Futuro* plastikoz eginiko etxea zen. Plastikoa, garai hartan, oso merkea, arina eta malgua zen, beste materialen aldean. Asmoa seriean fabrikatzea zenez, ezin lehengai aproposagorik topatu. Gainera, etxe prefabrikatua izanik, edozein tokitara garraiatzeko abantaila eskaintzen zuen. *Futuro* helikopteroz edozein tokitara eramateko diseinaturik zegoen. *Futuro*-k etxe ibiltari bat eskaini nahi zion gizarte ibiltari bati. 1973an, ordea, petrolioaren krisialdiak plastikoen prezioa igo, eta etorkizunik gabe utzi zuen *Futuro*. Ordura arte 100 etxe eraiki ziren. Horietako 20 Finlandian daude, eta besteak munduan zehar sakabanaturik.

In 1968 the Finnish architect Matti Suuronen designed a special building, which looked like a space ship, to be used as a holiday home or a ski shelter. He called it *Futuro*. *Futuro* is an example of the 60's' optimism and freedom. Conquering space, developing IT, extending means of communication ... At that time it seemed as if technology could solve all of society's problems. And in the western world, what's more, along with the strengthening of the welfare state, people committed firmly to leisure culture. And, of course, that leisure madness called for a new type of architecture.

*Futuro* came fitted with all its furniture. It was designed for eight people. *Futuro*'s greatest innovation, apart from its appearance, was the material used to make the house: *Futuro* was a house made of plastic. At the time, plastic was very cheap, light and flexible compared with other materials. As the initial idea was to mass produce, it was the perfect raw material. And, as it was a prefabricated house, it could be transported anywhere. *Futuro* was designed to be transportable by helicopter. *Futuro* wanted to be a mobile house for a mobile society. But in 1973 the petrol crisis raised the price of plastic and *Futuro* was left with no future. 100 houses had already been built. 20 of them are in Finland, the rest are all around the world.

#### *futuro*-ren ezaugarri teknikoak:

- kanpoaldea poliesterrez egina.
- koloreak: zuria, urdin argia, horia, edo gorria.
- altuera: 4 m.
- diametroa: 8 m.
- pisua: 4.000 k.
- oinplanoa: 25 m<sup>2</sup>.
- 20 leiho obalatu.
- eskailera tolesgarriak sarreran.
- 6 aulki-oheta aulki-oheta bikoitz bat.
- tximinia.
- sukaldea.
- bainugela komunarekin.
- helikopteroz garraia daiteke.

#### *futuro*'s technical characteristics:

- polyester exterior.
- colours: white, light blue, yellow or red.
- height: 4 m.
- diameter: 8 m.
- weight: 4,000 k.
- ground plan: 25 m<sup>2</sup>.
- 20 oval windows.
- folding steps at the entrance.
- 6 seat-beds and one double seat-bed.
- chimney.
- kitchen.
- bathroom with toilet.
- can be transported by helicopter.





futuro  
etorkizunaren bila  
looking for the future

## ideia ero bat miguel noguerarekin hizketan

**Ama bakarra dugu?** Mmmm baietz suposatzen dut. **Zer sentitzen da zure liburua liburutegiko “nabarmenen” artean ikustean?** Ongi dago, jakina, pozaz eta harrotasunaz gain, liburua nabarmenduen artean egoteak ikusgarritasuna ematen dio eta, ziurrenik, salmenta gehiago... etekin gurrpil zoro bat. **“Ultrashow”-etan nolakoak dira eskenatokira atera aurreko une horiek?** Azken aldian beroketa ariketak egiten ditut, saltotxoak, luzatze-ariketak, makurtu egiten naiz eta airean ukabilkadak ematen ditut (altuera baxu samarrean, “ipotxa” izenez bataiatu dudan zonalde batera), batzuetan akordeak entonatzan ditut ahotsa berotzeko... Badakizu, nire buruari prest nagoela esateko errutina bat. **Trantze unerik?** Beno, badira show-ean une batzuk, desio nituzkenak baino gutxiago, zeinetan ezhoiko erosotasun bat sentitzen dudan eta emanaldiak bere kaxa aurrera egiten duela sentitzen dudan; instantzia mental bat, zeinean gutzia erraz labaintzen den, dena behar bezala ateratzen den eta abar... Baina, jakina, egoerak ez du luzaroan irauten; borondateak kontrolatzen ez dakien oreka arraro bat da. **Noiztik idazten eta marratzen dituzu ideia horiek... Noiz hasi zen hau guztia?** 2000. urtean hasi nintzen gauzak apuntatzen (esaldi honetan urtea arraro geratzen da, e? 2000. urtean hasi nintzen gauzak apuntatzen, 4000n utzi nuen, 37.000n berpiztu nintzen), 2004an show-ak egiten hasi nintzen, eta 2011. urtean bizimodu bihurtu zen Bartzelonako Alexandra antzokian astero egiten nuen show-a. Ea zer gertatzen den etorkizunean, ea zer gertatzen den 40.000. urtean. **Norbaitek “jenio” gisa definitzen zaituenean, zer pasatzen zaizu burutik?** Ezin naitekeela konformeago egon pertsona horrekin, bazela ordua... Jenio gutxi da, nik nire burua JRENIO gisa definituko nuke. **Zure azken liburua irakurtzean, milenarista bat deskubritu dugu... Zer du Iker Jimenezek?** Flamenkoek dioten moduan “duendea” du. Ikerrek zizarea du, muxarradura, imurtzikada... Ez, ez, egun Iker Jimenez misterioaren Jimenez del Oso da, haren tokia hartu du, koroa oinordetzan hartu du; badira beste batzuk (ezin ditut aipamenik gabe utzi ia ia erretzeraino sakonak eta intentsoak diren Santiago Vazquez, Enrique de Vicente eta Andreas Faber Kaiser zena (katalaneraz ulertzen baduzue eta zabor hauek gustatzen bazaizkizue, ez galdu Faber Kaiserren podcast-a), baina Iker da orain famatuena. Onartu behar dut ez dudala gertuko sentitzen, berez; batzuetan, jasangaitzak egiten zaizkit bere demagogia, bere sentikortasun atzerakoia eta moral elizkoia, baina ezin da ukatu lan asko egiten duela, kementsu, eta estilo propioa duela, txio-txio pertsonala... Ze demonio! Maite dut, ordu asko izan dira... **Tabernak edo kafetegiak?** Kafetegiak. Ez dago kolorerik. Tabernetara ez naiz hurbiltzen, kafetegiak lasaiagoak dira, usain hobea dute, barnera biltzeko toki aproposak dira, beste gutizien artean gutizia bat, ez dira sozializatze guneak, kontenplaziorako guneak dira. **Jendeak, elkarrizketa hauetan, “Ultrashow”-etan edo zure liburuetan eskaintzen ditzuzun ideiak eta erantzunak espero dituela uste duzu?** Beno, Ultrashow-arekin konparatuta, abiadura ezberdin bat (hala espero dut), baina usain ezagun bat, trikimailu pare bat bai, ezta? Hala ere niretzat elkarrizketak ere eremu kreatiboa dira (momentuz behintzat, nazkatzen naizen arte).

Ser madre hoy. Blackie books.

Irailaren 14 eta 15ean Donostiako Antzoki Zaharrean





## a crazy idea talking with miguel noguera

**Do we only have a single mother?** Mmmm, I suppose that's right. **What do you feel when you see your book amongst library recommendations?**

It's good, of course. As well as feeling happy and proud, being recommended makes it more visible and that probably increases sales ... a profitable spiral. **What are the moments before going on stage like in "Ultrashow"?** Recently I've been doing warm-up exercises, jumping, stretching, I bend down and then jump into the air with my fists up (being quite short, that gets me up to an area I call "dwarf"), sometimes I sing chords to warm up my voice ... You know, it's a routine for me to say that I'm ready.

**A sort of trance?** Well, there are some moments during the show, more than I'd wish for, in which I feel unusually comfortable and I get the feeling the performance is going ahead on its own initiative: it's a mental moment in which everything easily glides along, everything goes as it should do ... But, of course, those moments don't last for long: they're rare moments in which there's a balance which isn't controlled by will power. **When did you start writing and drawing your ideas ... When did it all start?** I started writing things down in 2000 (the year sounds strange in that sentence, doesn't it? I started writing things down in 2000, stopped in 4000 and started again in 37000), I started doing shows in 2004 and it became a way of life in 2011 when I started doing weekly shows at Alexandra Theatre in Barcelona. Let's see what happens in the future, in the year 40000. **When people say you're a genius, what does that make you think?** I couldn't agree more, it was about time ... There aren't many geniuses, I define myself as a GRENIUS. **There's millenarianism in your latest book.**

